

IRUTXULOKO HITZA (2006-02-26)

DONOSTIA / Literatur solasaldiak hasiko dira bihar Euskaraz bost egingo dituzte ekainera bitartean eta Harkaitz Cano gidatuko ditu

Antton Fernandez/ Literatur solasaldiak euskaraz izango dira bihartik aurrera Udal Liburutegi Nagusian -San Jeronimo kalean-. Bihar hasi eta ekainaren 26a bitartean hilean liburu bati buruz hitz egingo dute. Solasaldi guztiak Harkaitz Cano idazleak gidatuko ditu eta 19:30ean izango dira.

Joserra Beloki Donostia Kulturako kidea aritzen da solasaldi hauek antolatzen. Literatura eta liburuak zabaltzeko asmoz sortu ziren eta etenaldi baten ondoren, euskarazko hizketaldien bigarren urtea da hau.

Literaturaz hitz egiteko

Solasaldietan jendeak literaturaz hitz egiteko aukera duela adierazi du Belokik. Gidariak, ondoko hilabeteetan aztertuko dituzten liburuak izendatzen ditu eta jendeak aukera izaten du lan hori irakurtzeko.

Hogei lagun inguru elkartu ohi da solasaldietan. Talde finko samarra dute eta, horrez gain, jende gehiagok ere parte hartzen du. Bereziki idazleren bat gonbidatzen dutenean, entzule gehiago elkartzen dira.

Bihar Stefan Zweigen Emakume ezezagun baten gutuna nobelaz hitz egingo dute; martxoaren 27a, Uxue Apaolazaren Umeek gezurra esaten dutenetik; apirilaren 24ean Gianni Celatiren Paradisuko Almanaka; maiatzaren 30ean Robert Walseren Jakob Von Gunten eta ekainaren 26ean, Aritz Gorrotxategi donostiarraren Kearen Truke nobelaz.